

## **Zuzenbide Fakultatearentzako prestakuntza ikastaroa sentsibilizazio kanpaina dela eta.**

Ingurumena Hobetzeko Planaren barruan, sentsibilizazio kanpaina bat (Neurria: SEN-1) antolatu nahi da fakultateko kolektibo guztiei zuzenduta. Horren helburua da lehengaien kontsumoa eta sortzen diren hondakinak murriztea.

Logikoa denez, ezarritako helburua da unibertsitate ikastegi batek jarduerak antolatzeko beharrezkoak dituen produktuen kontsumoa murriztea. Murrizketa horri begira, honakoen kontsumoan zentratu nahi da: papera, tonerra, erregaia, etab. Hori bakarrik eginda, gutxitu egingo litzateke sortu ohi diren hondakinen kopurua. Bestalde, horri gehituko balitzaio birziklatzeko tasa handiago bat, kontsumoa-hondakinen sorrera bikote hitza kuantitatiboki jaitsiko litzateke.

Nola lortu halako aldaketa bat eguneroko praktikan? Nola lortu jarrera aldaketa hori beste eremu eta produktu batzuetara zabaltea? Ez dugu orain arteko moduan kontsumitu behar, ezta tamaina horretan ere. Ez dugu horrenbeste hondakin sortu behar, ezta xahutu behar ere, esan ohi digute. Baina, zergatik? Hori guztia ezagutu beharrean gaude, kai onera iritsiko bagara. Ezagutzak jarrerak eta jokabideak aldaraziko dizkigu eta poliki-poliki ohitura egokiagoez jabetuko gara, eta, era horretara, gure kontsumo azturek eragiten duten ingurumen inpaktua murrizten joango da.

Prozesu horretan, ez dugu aski informazioarekin. Informazioa eta prestakuntza funtsezkoak eta osagarriak dira. Hori dela eta, ezinbestekotzat jotzen dugu, sentsibilizazio kanpainaren barruan, prestakuntza ikastaro bat antolatzea, ikastaro txikia izanda ere.

Marko teorikoak oinarria eskainiko digu arrazoiak ezagutzeko eta ulertzeko zergatik aldatu behar ditugun gure jarrerak. Marko teorikoaren ondoren, irakurketen eta horien gaineko debate baten bidez, nahitaez planteatuko dira hainbat gogoeta ingurumen, gizarte eta ekonomiarekin zerikusia duten gaien inguruan. Ikusiko da, baita ere, gai horiek guztiek era askotariko lotura dutela eta koherentzia emango dien ikuspegi orokor bat behar dutela.

### **Lehen saioa (hiru ordu)**

*Donostian, 2013ko azaroaren 18an edo 21ean. Leioan, 2014ko martxoaren lehenengo astean*

- Ikastaroaren marko orokorra. Ingurumena Garapen Iraunkorraren testuinguruan.

- Aurrekariak:

- . Munduko erreferenteak.
- . Europar Batasuneko erreferenteak.
- . Euskal Autonomia Erkidegoko erreferenteak.
- . Stockholm-etik (1972) Johannesburg-era (2002).

-Garapen Iraunkorra kontzeptuaren esanahia eta inplikazioak.

- . Hazkunde Ekonomikotik Garapen Iraunkorrera.
- . Iraunkortasunaren alderdi multidimentsionalak.
- . Baliabide naturalak modu iraunkorrean kudeatzeko irizpideak (hastapenetatik ekoizpenaren eta kontsumoaren prozedura amaitu arte).

### **Bigarren saioa (hiru ordu)**

*Donostian, 2013ko abenduaren 2an. Leioan, 2014ko martxoaren azken astean*

- Irakurgai eta adibide praktikoak.

- Bibliografia.

### **Hirugarren saioa (hiru ordu)**

*Donostian, 2013ko abenduaren 17an eta 19an. Leioan, 2014ko apirilaren bigarren astean*

- Lanak entregatu eta defendatu.

*Unibertsitate ekimen honetan parte hartuz gero, aitorpen akademikoa jasoko da kredituen bitartez, betiere Unibertsitateen 4/2007 Lege Organikoaren 46. paragrafo i) artikuluan jasotakoaren arabera, non zehazten baita egindako kurtsoko ikasketa planaren kreditu guztietatik gehienez 6 kreditu jaso daitekeela.*

**Era berean, animatu egiten zaituztegu birziklatze egokia bultzatzeko kanpaina globalean parte har dezazuen:**

“Hemengoaren hemen, horkoa hor. Bihurtu zure zaborra altxor.”

